



**2013KO URTARRILAREN 11KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko urtarrilaren hamaikan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2012ko abenduaren 14an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 78 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAHIRU MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HANAHIRU EURO ETA HAMAR ZENTIMO (33.653,10 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- ARERIAREN USTAIPENA LEHIAKETA JARTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ONARTZEA.-**

Udal honen jabetzakoa den Azeria kultur eraikinaren ustiaketa kontratatzeko osatutako espedientea ikusi ondoren, eta kultura batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabaki du:

- 1.- Jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta hogeita hamalau mila bederatziehun eta berrogeita hamar euroko (34.950 €) gastua ere.
- 2.- Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.
- 3.- Eslaipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

**IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-**

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:



#### Gerriko Ikerlan Beka.-

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarteari Gerriko Ikerlan Bekarengatik 2012 ekitaldiari dagokion dirulaguntzaren 2. zatiaren ordainketa egitea, hau da, bi mila eta bostehun (2.500 €) euro ordaintzea.

#### Plazako dantzen ikastaroa.-

Oin Arin dantza taldeari 2012ko urritik abenduara bitarteko plazako dantzen ikastaroaren antolaketarengatik laurehun (400 €) euroko dirulaguntza ematea.

#### Lazkao Txiki Musika Eskola.-

Lazkao Txiki Musika Eskolari 2013ko aurrekontuan aurrikusita daukan 12.300 euroko dirulaguntzaren kontura, lau mila eta ehun (4.100 €) euro aurreratzea.

#### Kultur taldeei dirulaguntzak.-

Kultur taldeei 2012 ekitaldiari dagozkien honako dirulaguntzak ematea:

<u>Taldea</u>	<u>Zenbatekoa</u>
Goierriko Bertso Eskola	1.374,79 €
Oin Arin Dantza Taldea	6.751,73 €
Kantaka Abesbatza	1.367,15 €
Antzar Gazteak	1.886,51 €
Azki Emakumeen Elkartea	270,00 €
Rwanda Taldea	318,73 €
Lazkao Abesbatza	2.069,82 €
Jundajo Txaranga	2.000,00 €
GUZTIRA .....	16.038,73 €

#### V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

##### Joxe Mari Kerejetaren oroimenez VIII. Pala Txapelketa.-

Juan Joxe Etxeberria Zalduak, uztailleko asteburuetan Lazkaon egindako "Joxe Mari Kerejetaren oroimenezko VIII. Pala Txapelketa"ren antolaketarako egindako dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kirol Batzordearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berrehun eta berrogeita hamar (250 €) euroko dirulaguntza ematea erabakitzen du.

##### San Silbestre Lasterketa.-

Duatloi X-extreme taldeak 2012ko abenduaren 31n antolatutako San Silbestre Lasterketa dela eta, 200 euroko dirulaguntza eskaera ikusirik, eta Kiroletako zinegotziak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bituekin, eskatutako dirulaguntza ematea onartzea erabakitzen du.

#### VI.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGITE ALDIZKOTASUNA.-

2013tik aurrera udalak jasotzen dituen fakturak ordaintzeko epea 30 egunekoa izango dela eta, orain arte bezala tokiko gobernu batzarra hilean behin eginez hori bete-



tzea nahiko zaila dela kontutan izanda, tokiko gobernu batzarrak egitearen aldizkotasuna aldatzea proposatzen da, maiztasuna handituz.

Honen aurrean, gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, hemendik aurrera bilkuran hilean bi izango direla erabakitzen du. Bilkurak hilaren lehen eta hirugarren astean egingo dira, orain bezala ostiraletan arratsaldeko ordubi eta erdietan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

